

Kontsumo Handiko Berrikuntzako Behatokiaren IV. aldia

**EROSKI-RI SARIA EMAN DIOTE BERRIKUNTZAREN
ARLOAN, AITZINDARIA IZAN DELAKO MARKA
PROPIOKO PRODUKTUAN INGURUMEN ADIERAZPENAK
ARGITARATZEN**

- **2020an sektorean nabarmendu diren hogei berrikuntzetako bat jo dute EROSKIren proiektua**
- **Iazko urte hasieran, EROSKI lehena bihurtu zen kontsumo handiko banaketa kateetan bere markako esnearen eta arrautzen ingurumen adierazpenak argitaratzen**
- **Ziurtagiri horiek lortzeko, EROSKI lankidetzan jardun da bere ekoizleekin, SAT Valle de Karrantza, Lacteos Santander eta Euskaber, eta Basque Ecodesign Centerrekin**

Elorrio, 2021eko martxoaren 24a.- [Espainiako Kontsumo Handiko Berrikuntzako Behatokia](#), urtero egiten duena Cerda Institutuak, EROSKIren proiektua hautatu zuen aitzindaria izan zelako marka propioko produktuen ingurumen adierazpena egiten, 2020an sektorean gehien nabarmendutako hogei berrikuntzetako bat.

Iaz urte hasieran, EROSKI lehena bihurtu zen kontsumo handiaren banaketan bere markako esnearen eta arrautzen ingurumen adierazpenak argitaratzen, AENOR GlobalEPD programaren egiaztapenarekin, Produktuaren Kategoriako Arauek (International EPD System programak jaulkiak) dakarten bezala.

Adierazpenok egiteko, lankidetzan jardun da bere ekoizleekin —EAEn landako arrautzetan diharduen [Euskaber](#), esnea ekoizten duen SAT Valle de Karrantza, eta Lacteos de Santander ontziratzailea— eta [Basque Ecodesign Centerrekin](#). EROSKI markarekin saltzen duen EAEko esneak Esne Produktu Jasangarriaren zigilua du Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak emana, eta EROSKI Natur arrautza freskoak landa oiloenak dira, zeinek aire librean mugitzeko askatasuna duten.

"Ingurumen adierazpenak berme bat dira gure bezeroek ingurumen informazio osoa izan dezaten produktuez, eta hala erabaki arrazionalak har ditzaten erosketa osateko orduan. Gainera, ekoizleei aukera ematen die xehe jakiteko nola eragiten duten beren produktuek ingurumenean, eta hala, lehentasunezko hobekuntza guneak identifikatuta, beren produktuen iraunkortasuna handitu dezakete. Aitorpen horrek zalantzarik gabe erakusten du nolako konpromisoa dugun kontsumitzaileenganako

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 944 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA
Consejeros del Norte

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa



informazio gardentasunarekin eta elikagaien iraunkortasun eredu batekin", azaldu du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

Urtero, Kontsumo Handiko Berrikuntzako Behatokiaren bitartez, Cerda Institutuak sektoreko erronka nagusiak ezagutarazi nahi izaten ditu, baita zein diren ere urteko proiekturik berritzaileenak erronka horiei erantzuteko orduan.

Gardentasuna arduraz kontsumitzeko

Produktuen ingurumen-adierazpen horiek argitaratuta, EROSKIak gardentasunarekin duen konpromisoa indartu du, baita kontsumo jasangarriagoaren mesedetan kontsumitzailea hezteko daukan konpromisoa ere. Konpromiso horren harira, EROSKIren helburua da bere markako produktuek ingurumenean duten eragina kalkulatzeko pausoak ematea.

Alde horretatik, EROSKIak jasangarritasunaren arloko zigiluak eransten ditu bere markako produktuetan; horrela, bermatu egiten du ingurumena errespetatuta ekoitziak izan direla eta horrek aldi berean hautu arduratsuagoa egin dezan laguntzen dio kontsumitzaileari. Hala, txikizkako banaketa kateetan lehenengoa eta oraingoz bakarra da Espainian Marine Stewardship Council eta akuikulturako GlobalG.A.P zigiluak eskuratu dituenak, arrainaren zaintza kateari egiten dioten ikuskaritzak gaindituta; horiek bermatzen dute arraina arrantzaleku nahiz etxalde jasangarrietatik datorrela. Gainera, EROSKI Natur freskoen markarekin 500 erreferentzia baino gehiago ditu horrelako ziurtagiriak dituzten ekoizleenak, baita bestelako zigilu batzuk ere, hala ekoizpen integratuarenak nola animalien ongizatearenak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 944 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

Consejeros del Norte

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

Online prentsa aretoa